

Ordizian, 2015eko irailaren 28an, Udaletxe honetako batzar-aretoan bildu zen TOKIKO GOBERNU-BATZARRA, Ohiko bilkuran. Honakoak bertaratu ziren:

BERTARATUAK:

LEHENDAKARIA: Jose Miguel Santamaría Ezeiza jn.

BERTARATUTAKO ZINEGOTZIAK:

Angelica Moreno Heras and.	EAJ/PNV
Igor Eguren Izagirre jn.	Ordiziako EH Bildu
Mila Sukia Galparsoro and.	Ordizia Orain
Iñaki Dubreuil Churruca jn.	Socialistas Vascos-Euskal Sozialistak

BERTARATU EZ ZIREN ZINEGOTZIAK:

Ez dago

IDAZKARIA:

Iker Rocandio Etxeberria jn.

EGUNEKO GAI-ZERRENDAKO GAIAK

- 1.- 2015eko irailaren 8ko bilkurako akta onartzea.
- 2.- Fakturen zerrenda.
- 3.- Legealdi plana.
- 4.- Ordizia Lantzen S.A.: Esarbe S.L.rekin dugun kontratuaren likidazioa.
- 5.- "Giza eskubideak herria" proiektua.
- 6.- Zenbait txosten eta eskaera.
  - Goieki: zenbait batzarren berri eman.
  - Arkitekto teknikoa: deialdiaren berri eman.
- 7.- Norberak leharkeenak.



ORDUTEGIA

HASIERA ORDUA: 13:33

AMAIERA ORDUA: 14:58



Lehendakari jaunak eman dio hasiera saioari, gai-zerrendako lehen puntuari helduta:

1.- 2015eko irailaren 8ko bilkurako akta onartzea.

Proposamena

2015eko irailaren 8ko ohiko bilkurako aktaren zirriborroa onartzea.

*Aho batez onartu da.*



2.- Fakturen zerrenda.

*Jakinaren gainean.*



3.- Legealdi plana.

Zenbait enpresari eskatu zaie aurrekontu bat, lau urteko ekintza plana definitze aldera. Esleitu ostean, azalduko digute bilera batean.



4.- Ordizia Lantzen S.A.: Esarbe S.L.rekin dugun kontratuaren likidazioa.

Azaldu da Udala aztertzen ari dela nola eman kontratuari bukaera eta nola kudeatu gaia aurrerantzean. Kontseilua deituko da ebazteko. Esarbe etorriko da bertara, azalpenak ematera.



5.- "Giza eskubideak herrira" proiektua.

"Dar-dar Produzioak " enpresak eginiko egitasmoa aurkeztuko zaio korporazio berriari.



## 6.- Zenbait txosten eta eskaera.

Goieki: Alkate jaunak zenbait batzarren berri eman du. Batzarrak Kontseilua aukeratuko du hurrengo bileran.

Sasieta: Gipuzkoako Hondakinen Konsortzioan eskualdeari dagozkion hiru ordezkariak hautatu ziren.

Enirio-Aralar: Batzarra egon zen. Aztertu ziren egin beharreko inbertsioak eta Batzorde Iraunkor bat sortzearen beharra.

Arkitekto teknikoaren hautaketa: Idazkariak azaldu du prozedura amaitzear dagoela. Bi hautagaiek gainditu dute (oraindik erreklamazioak falta badira ere).



## 7.- Norberak lekarkeenak.

Alkate jaunak esan du pintada asko agertu direla herrian. Testu bat proposatu du, horiek gaitzesteko.

Dubreuil jaunak beste testu bat proposatu du.

Sukia andreak esan du ados dagoela pintadak gaitzestearekin baina zalantzak dituela proposaturiko idatziarekiko.

Moreno andreak esan du diru asko gastatu dugula herria garbitzen, orain berriz zikindu dezaten, eta ekintza honen garbiketa gastua argitaratu beharko litzatekeela..

*Dubreuil jaunak pintadekiko irakurketa politiko bat egin du. Eguren jauna ez dator horrekin bat. Eztabaida sortu da gai honi buruz.*

*Testuak eztabaidatuko ditu talde bakoitzak.*

.....

Dubreuil jaunak, inmigrazioa dela eta, zurrumurruen aurkako programan parte hartzera gonbidatu ditu Batzordeko kideak, hauen erakundeak eta udal langileak. Esan du martxan jarri beharko dela errefuxiatu siriarrei harrera egiteko beharrezkoa den lan-taldea. Aipatu du Migrazio Teknikariarekin dagoen kontratua amaitzear dela.

Alkate jaunak esan du Teknikari berria Goiekiren bitartez kontratatuko dela, ahalik eta azkarren.

.....



Dubreuil jaunak galdetu du nola jokatu San Jose Egoitzako Gizarte Dinamizatzaile postuaren Hizkuntz Eskakizuna zehazterakoan.

.....

Alkate jaunak esan du beharrezkoa dela galdeketa bat egitea hondakinen biltze sistemari buruz eta talde guztiak bat zetozeala behar horrekin.

Sukia andreak esan du azterketa bat egin behar dela, ezer kontsultatu aurretik: nola gauden, zer suposatzen duen aldatzeak...

Moreno andreak dio jendeak kontsulta egitea eskatzen duela eta egin beharko dela, hori egiteko konpromisoa hartu baitzuten.

*Eztabaida sortu da kontsultari data jartzearen komenientziari buruz.*

.....

Eguren jaunak nahi du jakin komunikazioaz arduratzen den pertsonaren kontratazioa nola egin den.

Alkate jaunak dio kontratu administratibo txiki bat dela, hilabete batzuetarako.

Sukia andreak galdetu du zertarako den kontratua eta Alkate jaunak erantzun egunero dagoela lana, prentsa-oharrak egiten, sare sozialak elikatzen eta abar.

.....

Eguren jaunak galdetu du ia pilota partidua ospatuko den.

Alkate jaunak ezetz erantzun du. Izan baitira jada ekitaldi batzuk eta hau egitea ez litzateke egokia izango, baina lasaiago aztertuko dela gaia hurrengo urteetarako.

.....

Eguren jaunak galdetu du ia nola dauden pertsonala hautatzeko zenbait prozedura.

Alkate jaunak erantzun du Hiri-hezitzailea programan, hautaturiko pertsona lanean dela. TAOren zainzaileei buruz esan du ez dagoela ezer erabakia, bi Udaltzainen arteko mobbing salaketak baldintzatzen baitu guztia. Goiekiri buruz, esan du Lanbideren bitartez egin da deialdia.

.....

Altamirako obren bukaera datari buruz galdetu dionean Dubreuil jaunak, Alkate jaunak erantzun du bost astetan amaituko direla.





Aztergai gehiago ez dagoenez, Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, eta honako akta jaso da; hori, nik, Idazkariak egiaztatzen dut.

